

Testuliburua

'Inside Out Upper Intermediate' testuliburua eta ariketa koadernoak erantzunik gabe

Zure ikastaroa

Ikastaroaren xedea, gai esparru zabal baten barruan, mintzamenean zein idazmenean, zure konfidantzaz komunikatzeko gaitasuna garatzea da.

Mintzamena. Mintzamena bereziki oso garrantzitsua da maila honetan eta horregatik, gai eta egoera esparru zabal bat landuz, sarritan mintza-praktika saioak burutuko dituzu.

Idazmena. Idazmena modu sistematikoan landuko da, eta besteak beste, artikuloak, gutun formalak, emailak, istorioak, liburu zein pelikulen inguruko iruzkinak eta idazlanak landuko dira.

Irakurmena. Testuliburuan artikuloak, zientzia zein testu faktikoak, galdetegiak, formularioak notak edota gutunak aurkituko dituzu. Xehetasunerako irakurmena edo testuinguruaren araberako zentzu iragarpena bezalako irakurmen estrategia erabilgarriak lantzen jarraituko duzu.

Entzumena. Testuliburuan entzumenerako materiala duzu, laburpenak, elkarrizketak, eta istorio, solasaldi bezalako entzungai luzeagoak.

Ikasteko gaitasunak. Zure ikas-prozesuaren gainean arduratsu izatera, zure ikaskideekin lan egitera, ikasgelan ingelesa erabiltzera, zure koadernoak antolatzea eta klasean egindako lanak erreparatzera bultzatuko zaitugu.

Klasetik kanpo ere ingelesez aritzea espero dugu, horretarako, liburutegian liburuak zein bideoak maileguan hartu ahal dituzu.

Gramatikako eta hiztegiko zenbait arlo erreparatu eta hainbat berri ikasiko dituzu. Azken hauek, zure mintzamen zein idazmenean erabiltzen saiatu beharko duzu.

Ziurtatu zaituzte ikasitako hitz berri guztiak idatzi eta klase bakoitzaren ondoren hartutako notak erreparatzen dituzula. Ariketa koadernoan ikasitako guztia erreparatzeko aparteko hamaika ariketa aurkituko dituzu.

Zure ahoskera hobetzen konzentratu beharko duzu. Entzun ingelesa ahal duzun guztia.

Mailaren deskripzioa

Jarraian ikastaroaren amaieran zein nolako gaitasunak izan beharko dituzun zehazten da.

Entzumena

- Igorleak garbi hitzegiten badu, interesgarriak zaizkidan gaien inguruko informazioa uler dezaket, mezu orokorra zein zehaztasunak identifikatuz.
- Igorleak garbi hitzegiten badu eta hizkuntza oso formala ez bada ezagunak zaizkidan gaien inguruko grabazio luzeak jarrai ditzaket.

Mintzamena

- Hizkuntz maila ona duen jendearekin ezagunak zaizkidan gaien inguruan hizketaldi koherenteak izateko gai naiz, hiztegi eta estruktura desberdinak erabiliz.
- Nahiz eta hitz edo espresio egokia ez ezagutu adierazi nahi dudana adierazteko estrategia desberdinak ezagutzen ditut.
- Ondo ezagutzen ditudan gaien inguruan nire iritzia emateko gai naiz.

Irakurmena

- Erabiltzen den hizkuntza oso teknikoa ez bada edo hiztegia erabili ahal badut, interesgarriak zaizkidan gaiak jorratzen dituzten testu mota desberdinak ulertzen ditut.
- Testu luzeetan murgiltzeko gaitasuna dut, baita web orrialdeetan ere informazio espezifikokoaren bila.
- Interesgarriak zaizkidan abesti eta olerkiak ulertzeko gai naiz, nahiz eta zenbait hitzen esanahia garbi ez izan.

Idazmena

- Kohesiboak diren testuak idazteko gai naiz baina hitz eta egitura arruntenak erabiltzen ditut nahi dudana adierazteko.
- Informatiboak diren pertsona, leku eta objetuen deskripzioak eta nire iritzia emateko idazlan bakunak idatz dezaket. Erregistro egokia duten gutunak eta erreportajeak idazten hasia naiz.
- Internetetik ateratako ideietan oinarritutako testuak idatz ditzaket (adibidez, proiektuak), baina nire hitz propioak erabiliz.

Goikaldean zehaztutako ariketak burutu ahal izateko hizkuntzaren honako atalei aurre egin beharko diezu:

HIZTEGIA	GRAMATIKA
Honako gaien inguruko hiztegia: Arropa Harremanak Pertsona eta lekuen deskribapena, Dirua, Gorputza, Adjetibo konposatuak 'Phrasal verbs' Have, make, take, go collocations	Amaierako galderak (oinarrizkoa) Zehar-estiloa ('Reported speech') Third conditional (baldintza) 'Will', 'would' eta 'used to' lehenaldia eta orainaldiko ohituretarako Gerundioak eta infinitiboak Narrazio denborak Denbora perfektuak, 'present perfect simple/cont' barne. 'Future simple' eta 'continuous', etorkizun formak 'Passive' eta 'causative' 'So/such' Artikuloak Hanpadura (cleft sentences) Erlatibozko perpausak (defining/non defining) 'Past modals' (obligation, deduction) Probabilitatea: 'is likely to', 'is expected to'